



OÑATIKO UDALA

idazkaritza@onati.eus  
Telefonoa: 943 78 04 11  
Fax: 943 78 30 69  
20560 OÑATI

Udal Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko irailaren 15ean egindako bileran, besteak beste, ondorengo erabakiak hartu zituen

**.- Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren eremuan lan egiten duten elkar-teentzako 2016 ekitaldiko diru-laguntza deialdiaren ebazpena**

“Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren eremuan lan egiten duten elkar-teentzako diru laguntzak arautzeko ordenantza”. 2013ko martxoaren 27an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 60. zenbakian.

2016eko ekainaren 30eko Osoko Bilkuraren erabakiz aldaketa bat ezarri zitzaion, 2016ko uztailaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zena.

2016ko ekitaldirako diru-laguntza deialdia 2016ko irailaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 175. Zk. argitaratu zen. Eskerak aurkezteko epea irailaren 28an bukatu zen.

Hau dela eta, Berdintasunerako Batzordeak adierazi du aipatutako epean ez dela inolako laguntza eskaerarik jaso. Nolanahi ere, Batzordeak adierazi du aurtengoa behin-behineko egoera bat dela eta laguntza esparruak estrategiko izaera duenez datorren urteari begira mantendu beharko litzatekeela.

Gaia aztertu ondoren eta Berdintasunerako Batzordearen irizpena kontuan hartuz, jakinaren gainean geratzeaz gain, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki du datorren urteko aurrekontuetan horretarako diru partida bat gordetzea.